

## **Geur....ZERO KM hastera goaz.**

Azkenaldixon haize freskoa dabil gernikaldien...

Gatxa da herrixen pasetan dabilena aittutie edo azaltzie baina erreza bizitzie. Ein dan lana ez da izen makala eta fruitu ederrak emon deuz. Bildurrek, atzien itzi doguz, atzien EZINkerixek...Eta aurrien: benetan bide politte.

Geur....ZERO KM hastera goaz.

ZERO KM prozesu parte-hartzaile bat da. Prozesu honetan gernikako elkarteok, gazteok, zein herritarrok dekoguzan beharrizanen inguruko diagnostiko bat egin eta era parte-hartzaile batean ASTRA zertarako eta zelan erabiliko dan erabakiko dogu. ZERO KM izaera irekia, zuzena, askotarikoa, orekatua, erabakiorra eta lotezlea da.

Proiektu honekin era aktibo eta zuzenago batean parte hartzen dogu geure arazoan soluziobidean.

Dagoeneko martxan ari gara eta ZERO KM hasiera emateko jaialdi bat antolatzea erabaki dogu. Ekainaren 17an, zapatua, gernikako kaleetatik igaroko da ASTRA Korrika, eta parte hartzera gonbidatzen dogu mundu guztixe. Giroa alaitzeko, asteburu osoan ekitaldi, kontzertu eta ume, gazte, zein helduentzako jarduerak be egongo direz. Egitaraua datorren astien aurkeztuko da.

Animatu parte hartzera.

Zu barik eztau